

**MARTIN UGARTE “SALETXE” OLERKARIA
(1916-1996)**

Sarrera

Hona baserritar olerkari bat, gure lurrian iraganean heldu ohi zirenetako bertako fruitu bakan bat. Eder bultzadak bere baitan jasoz eta barneko errotan ehoz, olerki bihurturik itzul-tzen zizkigunetakoa genuen. Berezko olerkaria esatera nin-doan, berez-berezkorik ez dela ezer ohartu naizenean. Izan ere, olerkia iturritik ura bezala zeriola begitandu arren, gogoe-ta luzeen eta hitz-zizelez kolpeka-kolpeka, hemen moztu eta han ezarri, egiten zen ahaleginaren emaitza izan ohi zuen.


Baina, hartarako ikasketa berezirik gabe, bere burua jantziz joan zen autodidakta zela bai garbi esan dezakegu, landan berez-berez erretzen den lore usaintsua bezalakoa. Bai, izan zuen gaztetan norabide horretan jarriko zuenik edota hasie-rako txingar ezbaiko hari haize eman eta pizten lagunduko zionik. Brinkolako auzo-eskolan maisu izan zuen on Jeronimo apaiz beasaindarra aipatzen omen zuen bere idazle grinaren piztaile. Hala diote haren literatura-ibilbidearen hasierak kon-tatzen dizkigutenek. Gero, txinparta su bihurtu zenean, argi-emaile eta bidelagun on-onak izan zituen, besteak beste, Ma-nuel eta Joan Mari Lekuona osaba-ilobak eta aita Santi Onain-dia.

Hain zuzen ere, Amorotoko idazle karmeldarraren ondoan ezagutu nuen nik Olerti-egun haietako batean. Balendin Aurre-Apraiz Ajangizko olerkariari buruz idaztean honela gogoratzen nuen Martin Ugarte: “Gure baserritarren artean ahozko etorri ederrekoak eta bertsolariak ugari izan dira. Olerkari eta idazleak, ostera, banakak baino ez. Olerkarietatik, Balendinez gainera, beste bat ezagutu neban: Martin Ugarte “Saletxe”, olerkari fina eta jantzia”. Bilera hura eta hango giroa maite zituen gure legazpiarrak eta urtero etortzen omen zen Agustin Beloki lagun zuela. Biek esku hartzen zuten “Olerti lehiaketan”, Ugartek lirika sailean eta Belokik bertso jarrien sailean, hainbat sail hartzen baitzituen lehiaketa hark. Ni bi urtez edo izan nintzen han eta oroipen ezin hobea utzi zidan Saletzek. Hizketan baino entzuten gehiago aritzen zena, baina hitz egiten zuenean, egoki eta zentzuz egiten zuena. Beti mi- retsi izan ditut baliabide gutxiz eta ingurumarian laguntza handirik gabe aurrera egin eta gure kulturari halako ekarpe- nak egin dizkiotenak.

Zergatik dakardan *Karmelen* orrietara Martin Ugarte? Haren jaiotzako datari erreparatu badiozu, irakurle, aurten direla 100 urte hura jaio zela ohartuko zara, 1916ko otsailaren 14an etorri baitzen mundura. Haren jaiotzaren mendeurrena dugun honetan, ezin, bada, jaramonik egin gabe eta mutu geratu hura ezagutu genuenok eta batez ere hark maite zuen *Olerti* aldizkariaren ama den *Karmel* honetan geure apurra eman nahirik ari garenok. Egia esan, olerkaria izaki, *Karmel* aldizka- rian baino ohikoagoa genuen *Olertin*, baina biak eskutik ibili direnak dira eta *Olerti* aspalditxo isildu zenez gero, *Karmelen* egin nahi izan diogu oroipen xume hau.

Joan zaizkigu belaunaldi hartako guztiak lan mardul eta merezimendu handikoak utziz. Ez dago profeta izan beharrik, etorkizunean nekez izango dugula haien antzekorik iragartze- ko:

14 urte arteko ikasketekin soilik, euskal literaturari halako ekarpena egingo zion baserritar olerkaririk. Ongi mereziak izango ditu, beraz, guk hemen egiten diogun oroipenaz gainera, beste hedabideetan egin eta egingo dizkiotenak.



Bizitzako zenbait argibide

Bi iturri erabili ditut bizitzako argibide hauek zirrimarratzeko: batetik, Santi Onaindiak haren *On Egiñaren Obaria* eleberritari eginiko sarreran datorrena eta bestetik, Tere Beloki kazetariak, hain zuzen ere, haren jaiotzaren mendeurrenerako

idatzi zuena (internetetik jaso). Bietatik ere zertzelada ugari jaso daiteke. Aita Santi Onaindiak *zuka*, autorearekin solasean bezala, idazten du gozo-gozo eta, azken partean pixka bat eleberriaren gaian sartzen bada ere, Martin Ugarteren bizi-tzako zertzeladak jorratzen ditu. Zati osoak aldatu ditut hona, gutxitan sumatu baitut Amorotoko idazlea hemen bezain prosa berezko, erraz eta gozoaz:

“Bi auzo ditu Legazpik, ondo lerdanak: Telleriarte ta Brinkola. Zu Telleriarten bizi zera, Saletxe baserrian; ortxe bait ziñan sortu 1916-2-14an. Damaso zure aita oñatiarra, ta zure ama Jertrudis Azurmendi, Zegamakoa. Ortxe ezkondu ziñan 1949-1-8an, Oñatiko alaba Juana Arregi Idigorasekin. Bi alaba izan dituzute, M. Pilar eta M. Anjeles, muxu-belxko eta langille biak.

Zeure len-ikaskizunak –azkenak ere bai?– Brinkolan burutu zenituen, garai artan apaiz-etxean eskola ematen zuen elizgizon argiarekin; eta berezkoaz gain, ainbat gaitan eskolatu ziñan. “Berezkoaz gain” diot, eta olaxen da: berezkoa da, izan ere, norbere izateak damakiona geien bat, euskaldun jendea jator biurtzen duena, joandako urteetan egiazki. Gaur eskolatuago datorkigu gaztedia, baiña euskaldun-ezago ere bai, tamalez; odol-odian dakarten kultura-sena lagarik, arrotz tanke-raz bait zaizkigu moldatzen.

Basa-seme jatorra zaitugu, zure deiturak adierazten digute-nez; urte mordo batez zamatua onezkero. Sei-zortzi buru dituzu ukuilluan; nolako buruak gero! Etxalde joria ere baduzu, arto eta babarrun sail ederrez inguratua. Orrezaz kanpo, etzera nagia, eta fabrikan lan dagizu, ofizial ona zeralarik: 38 urte daramazkizu Legazpiko Patrizio Etxeberriaren lantegi sonatuan. Gaur, izan ere, igurdizi eta esku-dantza behar da bizi-moldeari gupilla emateko. Eta zuk, gizaseme azkar, olaxe fabrika eta soro, ederki uztartzen dituzu borobil bigunean.

Gainerakoan, kezkatu zera-ta –obe: olerkari–, idatzi egiten diguzu, lumaren puntaz zeure barrunbe sentikorra ustu ta iragarri-aziz. O bai! Baserritar zera, ta olerkari ta idazle. Ez da gezurra. Ainbat olerki ta poema luze-xamar dituzu nik amar urtez argitaratu nuen *OLERTI* (1959-1969) aldizkarian, lar luzatu gabe argia ikusiko dutenak”.

Honaino maisuki agertu digu Martin Ugarteren bizitzaren eta nortasunaren berri. Zenbait xehetasun falta dira, Tere Belokiren idazlanetik osatuko ditudanak:

“Hiru anai-arreba izan zituen. (...) Goitizena eman zion Telleriarte auzoko *Saletxe* jaiotetxea izan zuen bizitoki bizi izan zen 80 urtetan. 1996ko uztailaren 28an hil zen.

Umetatik irakurzale, Brinkolako auzo eskolan maisu izan zuen don Jeronimo apaiz beasaindarra aipatu ohi zuen bere idazle grinaren esnale. Astero, Joxe Mari tabernariarengana iristen zen *Argia* irakurrarazten zien hark dotrinan. Hamalau urte zituela hasi zen Saletxe Brinkolako berri emanez *Argian*. Ordurako, Zumarragan izan zen haurren lehiaketa batean bere olerki bat saritu zuten.

Hamalau urterekin eskola utzi eta artzain ibili zen aitarekin hiru urtez, uda partean Aizkorriko Arriurdinen eta Aizkorri magaleko Urkimendi, Paola eta Oribin besteak beste, udaberri eta udazkenetan.

Hamazazpi urte zituela, gerra zibila lehertu baino hiru urte lehenago, hasi zen Patrizio Etxeberriaren fabrikari lanean eta hantxe aritu zen jubilatutako bitartean. Gerra ostean, Legazpiko parrokiak hilero ateratzen zuen *Sed de Conquista* aldizkarian euskaraz argitaratzen zuten orrialdea osatzea bere eginkizuna izan zen.

Baserriko eta fabrikako langintzek utzi izan zioten tarteetan landu zuen Martin Ugarte Saletxek bere idazle ibilbidea. Baserriko sukaldea zuen idaztoki.

Olerkaria izan zen nagusiki. 1958. urtean Hondarribiko “Basurko Saria” eskuratu zuen *Zeru Goiak Olerkiz* poemarekin eta ondoren idatzi zituen *Aizkorri* (1962), *Belaun giroen olerki ixilla* (1964), *Itxas poema*, *Etxera begira*, *Bizitzaren borroka* (1975), *Lana kantugai* (1977)...

Gehienak saria jasotakoak dira Aita Santi Onaindiak Amorebieta-Etxanoko Larrean urtean behin antolatzen zuen Olerti Egunean. *Olerti* eta *Karmel* aldizkarietan argitaratu izan zituen lan asko. *Zeruko Argia* eta *Hots* aldizkarietan ere bai”.

Hona ongi ezagutzen zuen kazetariak emandako argibide zehatzak. Horrela, bi lekukotasun hauetaz, behar bezala taxuturik geratzen direla, uste dut, Martin Ugarteren bizitza eta ibilbide literarioa. Baina beste xehetasun bat ere gehitzen du eta azpimarratzen Tere Belokik, ahaztea komeni ez dena: berak jasotako ondarea, batez ere hizkuntzari zegokiona, ondorengoei uzteko ahalegina: “Biziera batzuk galtzearekin batera hizkuntza ere izaten ari zen galerez arduratuta, gurasoei, auzoko helduei edota artzain urtetsuei entzun izan zizkien hitz eta esamoldeak idatziz jaso zituen urtetan eta bi liburutan argitaratu: *Jatorriaren Errotik* (1986, Itxaropena) liburuan *Aizkorri artzain poema* eta *Tankalaren leloan*. *Gure errota ta errotrien azkena* poema ez ezik (ezezagunak izan daitezkeen hitzekin hiztegitxo bat gehituz bakoitzari), euskal esaera zaharren bilduma bat kaleratu zuen. 357 atsotiz jaso zituen 7 sailetan banatuta (...).

Handik urte batzuetara kaleratu zuen *LEGAZPI BARRUTIKO HITZEN BILDUMA* (1993) Legazpiko Udalaren laguntzaz. 23 ataletan antolatuta (Giza-soina, janari-edanak, etxea, denbora...) argitaratu zuen Legazpiko hizkeraz hitz zerrenda luzea, batzuetan ze esalditan erabil daitezkeen erantsiz, eta 93 tauletan jaso zituen Legazpiko hizkerako aditz formak, zuka eta hika”.

On Egiñaren Obaria eleberria ere, azken batean, ez ote dator helburu beraren bila? Hau da, berak jaso zuena herriari

MARTIN UGARTE

Jatorriaren Errotik



itzultza? Nekazari herri bateko bizitza, kezka, ohiturak, euskara... eskaintzen zaigu hor. Fikzioa du horretarako bide. Historia eta etnografia bidea hauta zitezkeen, baina Arriantxo “sasi-medikua”ren inguruan eraikia dago herrixka hartako kontakizuna eta ahoz aho zebiltzan esanetatik jasoa izanik, ezin zuen hartaz historiarik edo biografia zuzen eta errealik idatzi. Horregatik jotzen du fikziora eta eleberri erara kontatzera. Horrek nekazari-herriko tradizio, siniste eta biziera kontatzeko abagunea eskaintzen dio eta batez ere aurrekoengandik jasotako euskara ederrean guztia egosi eta herriko irakurle xumeari halako jaki gozoa eskaintzeko abagunea.

Martin Ugarteren olerkia

Liburuko olerkietan berak ongi ezagutzen dituen bi langintza ditu kantagai: artzaintza eta errotari-lana. *Jatorriaren Errotik* liburua argitaratu zenean (1986) artzaintza-lana iragana zen Martinen bizitzan, baina ariman betiko josirik geratu zitzaiona. Berak Aizkorri inguruan aitaren ondoan hiru urtez eginiko bizimodua, erreallitatean oinarrituz, baina hura gaindituz, eder plano batetik arte, olerki bihurtzen digu. Manuel Lekuonak gorapenezko hitz gozoz txalotzen du gure olerkaria. Pixka bat aipamen loratuegietara joz, Virgilio bat dakar harira, haren antzera artzaintzaren bitxitasunak kantatzeko goi-deiez seinlatu eta trebaturikotzat joz: “Jaungoikoak Goi-deiez ortarako aukeraturik eta prestatuak zeukan, salbo-ta, Berjelio bategen bezela artzaintzaren bitxitasunak kantatzeko. Begi ernaiez ikusteko eta biotz sentikorrez sentitzeko; Artzaintzaren edertasunak euskal-doiñuan kantatzeko”.

Nolabait ezustekotzat hartu du Oiartzungo jakintsuak gure olerkariaren bigarren poema luzea: “Ola ezagutzen genduan guk, Legazpiko Telleriarte auzoan, Saletxe baserrian jaio, ta bizi dan gure Martin Ugarte. Artzai kantari.

Gaur, ordea, –eta ain egoki– beste gai bat kantatu nahi izan digu; ERROTA.

Eiherari, Errotari, boluari kantatzen dio oraingoan gure Martinek. Maitezko kanta bat. Agurrezko kanta bat, bear bada... Laster ez da ezagutuko Euskalerrian Errotarik. (...) Banañan gure Literaturan, Martinen Poesiari esker, entzungo da gure Errota maitagarriaren zerbeit: kliketa gozo bat... Eta, entzun ere, leengo ritmotik kanpora dagon beste bertso-izaera batean: Bertso Askatu, Bertso Librean”.

Errotariaren katurako erritmo askatua aukeratu duela dio, silaben eta oinen erritmoari baino, pentsamenduaren erritmoari gehiago begiratzen diona. Martinek bere bertsoari estutzen zuten loturak askatu dizkiola. Errotak berak omen du nahiko *bertso lotu*. Erritmo askatuaz gainera, literaturan garrantzi handia duen beste elementu bat ere aurkitu du Manuel Lekuonak Martinen olerkian: Imajinen eta metaforen elementua.

Zehatzago aztertu du, batez ere metrika aldetik, Joan Mari Lekuonak. Honek, osabak dioen “bertso libre” delakoan, hainbat ñabardura aurkitzen ditu: zati bakoitzean hiru edo lau eredu erabiltzen dituela dio eta era berean txandatzen direla eredu horiek:

1. Esaldien kulunka, libre antzekoa. Bertso libreak badirudite ere, ez direla halakoak diosku. Urrutiko hoskidetasuna nabari dela beti, eta etenaldiek ere badutela zerikusirik esaldiek duten joskerarekin, eta sintaxi-egiturekin.
2. Ahapaldien azken lerroan soilik gordetzen dutela hoskidetasuna. Hau izan daitekeela, beharbada, gehienik nabarmentzen den eredia, dio. Sekuentzia bakoitzak bere puntua dararamala, eta askotan hasiera ere hitz berarekin egiten dela diosku eta horrela sekuentzia bakoitzari eta honen barruko ahapaldiei paralelismo zentzua hartzen zaiela.
3. Estrofa klasikoagoak:

- a) 12 (6+6) A
 12 (6+6) B
 12 (6+6) A
 12 (6+6) B
- b) 10 A 10 A 10 B 10 A
 10 A 10 A 10 A 10 A
 10 B 10 C 10 A 10 A
 10 A 10 A 10 A 10 A
- c) Molde txikian: zortziko txikian eta hamabiko txikian.
- d) 8 –
 8 A
 8 –
 8 A
 8 –
 8 A
- e) 15 (5+5+5) A
 14 (5+5+4) B
 15 (5+5+5) A
 14 (5+5+4) B

“Era askotako estrofagintza du maite egileak. Libreagoetan ematen digu gairik geiena. Eta aapaldi neurtuetan aberastasuna, deskantsua eta izaera poetikoa erakutsiko dizkigu. Gauza ugaria eta ondo jantzia agertzen zaigu metrika arazoan”.

Gaur egun, modernitatearen bitsetan iraganekoa ahaztu eta gutxiesten den honetan, literaturan adituak ziren bi maisu handiren lekukotasuna ekarri nahi izan dut hona. Izan ere, iraganeko ahotsei nekez egiten zaie leku oraingo literaturaren kontzertuan. Zaharkituzat jotzen baitira eskola zaharreko haiek; olerkaria baserritarra izanik, are gehiago... Baina ez da inola ere zokoratu eta ahaztekoa, bere kontura eta maisu handien aholkuak jasoz, literaturan halako urrats sendoak eman

dituen eta, metrikari, imajinetan nahiz hizkuntzaren erabileran hain saiaturia izan den baserriar olerkari autodidakta hau.

Aldizkarietan argitaratutako poemei erreparatzen badiegu, bi lehenengoak 1939. urtekoak dira, *Euzko Deyan* argitaratuak dira; biak zenbaki berean. Kasu bietan ere ez da izenbururik ageri, olerkiaren hasiera baizik; bataren hasiera hau da: (?), *Joan dan urtea urte ona zan*. Bestearena, hau: *Nereak orain aitor nai ditut*.

Azkena *Olertin* argitaratu zuen (1987-90). Izenburu hau du: *Edestia aztertuaz*. Eta urte berean *Hots* izeneko aldizkarian *Iritxi naiz*. *Igo naiz...* izenburua duena. Aitona izatera, zahar-tzarora, biziaren azken arora iristea kantatzen da poema luze samar honetan. Nahiko libre jokatzeko du egitura aldetik: hasierako ahapaldietan neurria eta hoskidetasuna gordetzen da, baina erdialderantz glosa antzera, prosa poetikoan sentimenduak adieraztera igarotzen da, berriro ahapaldi egiturara itzultzeko.

1960ko eta batez ere 1980ko hamarkadak dira oparoenak; 1950eko hamarkadan oso gutxi ageri da haren izena eta 1970ekoan ere gutxi samar.

Azken hitza

Olerti Egunean Larreara etortzen ziren haien aipamena egin ez hasi dut Martin Ugarteri buruzko idazlan hau. Era berean amaitu nahi nuke. Gogoan dut aita Santi Onaindiak diru gutxi-gutxi izaten zuela olerti-lehiaketako irabazleen merezimenduak saritzeko. Horretaz jakinean ziren saridun eta gainerakoak eta esaten zioten, beraiek ez zeudela diruari begira, dirua, asko balitz ere, laster urtzen zelako. Dirua baino diploma edo agiri eder bat nahiago zuketela, bilobek edo ondorengoek jakin zezaten euskal letretan zerbait bazirela edo izan zirela...

Haren olerkiaren usain onaz eta ahogozoaz gera gaitezen, hona hemen amaitzeko bat:

Gabon! Gabon da berri on!

Lur jelatua mireska
aizearen ezpain latza.
Mendi-sapalda irtenak,
lantzurdez estalgi otza.

Atez-ate errixka barna,
Jose ta Mari naigabez.
Naigabez eta ate joka,
gau-ostatuan bearrez.

Etxe-jaun zuurrak; oin-sume elduak;
gaitzetsi dituzte
bidazti arrotz aulduak.

Eta Erodesen jauregian,
jauntxo aundizkiak jan-edanez;
gurari lizunez leporaiño,
urre zillar bitxien ederrez...

Ta, ordu berean,
aterpe zirtzillean;
Aurtxo Jainkoa
otzez dardari,
abere tartean...

Ogei mende geroago,
ta Euskalerra zaarreaan...
Amonatxo bat sutondoan,
txingarrak zirrikaz auts errean;
ezpain-pilpiraz dago:

...Gosetien Kristo maitabera.
Giltzapetuen Kristo ixila.
Ebanjelioko Kristo bizia.
Langilleen Kristo nekepetua.
Dirutsuen Kristo gurutzetua.
Zapaltzailleen Kristo lotua.
Bakoitzan Kristo eskura-eziña...
Zergatik ote or,
aspil txikerrean ozmindurik,
geroztiko guzia...?

Bat-batean, aur kantarien eres-lillura,
errugabe bitxiok, aingeru bailira:

...Aurtxo Jainkoa
otzez mindua,
ganbelatxoan
zapiz bildua...

(*Goiz-Argi*, 1974ko abendua, 222. zkia.)

Luis Baraiazarra Txertudi